


Euskal AEko BPGk urte arteko %1,3ko murrizketa izan zuen 2012ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, aldakuntza negatiboa izan da, baita ere, (%-0,4)

Euskal AEko BPG %1,3 murriztu zen urte artean 2012ko hirugarren hiruhilekoan, Eustatek landutako datuen arabera. INEren arabera, Espainiako ekonomia %1,6 murriztu zen.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, Euskal AEko BPG %0,4 murriztu zen hirugarren honetan; hiruhilekoen arteko laugarren hazkunde negatiboa jarraian. Aldakuntza hau hamarren batez negatiboagoa da Espainiako ekonomiarena baino.

1. grafikoa. BPG m / p. Urte arteko eta hiruhileko arteko hazkunde-tasak. (%)



Iturria: EUSTAT - Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak - eta INE

Eskaintzaren ikuspuntutik BPGren urte arteko murrizketa jarduera-sektore guztiei zor zaie, lehen sektoreari izan ezik. Produktuen gainera zerga garbietan ere atzerakada dago 2011ko hirugarren hiruhilekoari buruz, aurreko hiruhilekoan baino areago.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010	2011	2011				2012		
			I	II	III	IV	I	II	III
Nekazaritza eta arrantza	24,7	-7,6	-13,9	-16,0	-21,6	16,9	18,0	12,6	6,8
Industria	1,8	2,1	3,7	3,3	1,5	-0,2	-1,1	-2,6	-2,7
Eraikuntza	-9,8	-5,3	-4,6	-5,6	-6,0	-4,8	-5,9	-6,2	-5,7
Zerbitzuak	0,6	0,9	0,8	1,0	1,3	0,6	0,2	0,0	-0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,0	0,2	0,0	-0,5	0,3	0,9	0,8	-0,1	-0,5
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2	-0,3	-0,9	-1,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen sektoreak bilakaera positiboa izan du, bai urte artean (%6,8), bai hiruhileko artean (%18,9).

Industriak jokaera negatiboa du (%-2,7) urte artean, laugarren hiruhilekoz jarraian. Industriaren balio erantsiak beheraka darrai (%-0,7) hiruhilekoen artean bosgarren hiruhilekoz jarraian.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011				2012		
	I	II	III	IV	I	II	III
Nekazaritza eta arrantza	-41,8	6,6	25,3	50,3	-41,3	1,7	18,9
Industria	0,7	1,3	-0,6	-1,6	-0,2	-0,2	-0,7
Eraikuntza	-2,7	-2,0	-1,5	1,3	-3,8	-2,4	-0,9
Zerbitzuak	0,3	0,4	0,0	-0,1	-0,1	0,2	-0,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,8	0,6	1,2	1,0	-2,0	-0,3	0,8
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,2	0,0	-0,2	-0,3	-0,4	-0,4

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntza gutxiixeago murriztu da urte artean hiruhileko honetan, %5,7. Aurreko hiruhilekoaren aldean sektorearen balio erantsia ere murrizten da, gutxiago aurreko hiruhilekoan baino (%-0,9 orain, %-2,4 aurrekoan).

Merkatuko zerbitzuen sektorean tasa negatiboak ditugu bai urte artean, %0,3, bai hiruhileko artean, %0,7. Jokaera honek areagotu egiten du aurreko hiruhilekoetako desazelerazioa.

Ez-merkatuko zerbitzuetan ere jaitsiera dago jarduera-mailan: urte artean %1,5 jaitsi da, eta hiruhileko artean %0,3 hazi, aurreko hiruhilekoan (%2,0) baino gutxiago.

Zerbitzuen sektorean, guztira, bai urte artekoa, bai hiruhileko artekoa negatiboak dira; %0,5 gutxiago aurreko urteko hiruhileko berean baino eta %0,6 gutxiago aurreko hiruhilekoan baino.

Sektore-agregatuen joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko bilakaera negatiboak ekarri ditu, %1,4 urte artean eta %0,5 hiruhileko artean. Bi tasetan balio negatiboak dituen hirugarren hiruhileko jarraian da.

Eskariaren aldetik, aurreko hiruhilekoetan bezala, BPGk hazkundeari egindako ekarpena positiboa da; bai esportazio- bai inportazio-mailetan jaitsierak izan dira, aldakuntza-tasa negatiboak bai urte artean, bai hiruhileko artean.

3. taula. BPG m / p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010	2011	2011				2012		
			I	II	III	IV	I	II	III
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	0,9	0,6	0,8	0,3	0,9	0,5	0,1	-1,4	-0,9
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	2,3	-0,8	1,3	1,3	-2,0	-3,6	0,2	-2,4	-3,0
Kapital-eraketa gordina	-6,0	-1,5	-1,8	-1,0	-0,2	-2,8	-4,2	-4,6	-4,3
Barne-eskaria	-0,5	-0,1	0,3	0,2	0,2	-1,0	-0,9	-2,3	-2,0
Guztizko esportazioak	7,6	9,0	13,3	3,2	12,4	7,3	-2,3	-0,1	-8,5
Guztizko inportazioak	5,5	7,4	11,6	2,1	11,1	4,9	-3,0	-2,1	-9,1
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2	-0,3	-0,9	-1,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Familia-etxeen azken kontsumoaren gastuan (Kontsumo pribatuan), aurreko hiruhilekoetan bezala desazelerazioa dago: %0,9ko murrizketa aurreko urteko hiruhileko beraren aldean Hiruhileko artean, %0,3ko hazkundera dago; aurreko hiruhilekoan, berriz, %0,8 jaitsiera zegoen.

Zerga-legerian izaniko alaketak izan daitezke bilakaera hau ulergarri egiten duten eragileetako bat.

Herri administrazioen azken kontsumoaren gastuan (Kontsumo publikoan) areagotu egin da joera negatiboa bigarren hiruhilekoz jarraian, bai urte artean (%-3,0), bai hiruhileko artean (%-1,5).

Bai Kontsumo pribatuaren, bai Kontsumo publikoaren urte arteko aldakuntza-tasa negatiboek %1,3ko murrizketa ekarri dute **Azken kontsumoaren gastuan** (Familia-etxeen azken kontsumoaren gastua gehi Herri administrazioen azken kontsumoaren gastua). Aurreko hiruhilekoaren aldean ere murrizketa dago, %0,2. Bi jaitsiera-tasak aurreko hiruhilekoak (%-1,6, %-1,0) baino txikiagoak dira.

Kapital eraketa gordinen (Inbertsioan) jaitsiera dago berriz urte artean (%-4,3), gutxixeago aurreko hiruhilekoan (%-4,6) baino. Hiruhileko artean hazkundera dago Kapital eraketa gordinen, %0,3; aurreko bost hiruhilekoetan izandako joera negatiboa aldatu egin da.

Barne eskaria, zeina osatzen baitute Azken kontsumoko gastuak eta Kapital eraketa gordinak, murriztu egin da berriz urteko hirugarren hiruhilekoan. Urte artean %2,0ko jaitsiera dago hiruhileko honetan (jarraian, laugarren balio negatiboa).

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011				2012		
	I	II	III	IV	I	II	III
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	0,2	0,6	-0,2	-0,1	-0,2	-0,8	0,3
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	-1,6	1,4	-0,9	-2,4	2,3	-1,3	-1,5
Kapital-eraketa gordina	0,0	-0,8	-0,1	-1,9	-1,5	-1,3	0,3
Guztizko esportazioak	7,6	-4,4	8,3	-3,7	-2,1	-2,3	-0,8
Guztizko inportazioak	8,7	-5,3	7,1	-4,9	0,6	-4,5	-0,5
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,2	0,0	-0,2	-0,3	-0,4	-0,4

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo sektoreak BPGri eginiko ekarpena positiboa izan da, aurreko hiruhilekoetan bezalaxe; halere, kanpo-merkataritzaren murrizketa nabarmena ikusten da. Kanpo saldoaren ekarpen positibo berri hau osatzen dute esportazioen urte arteko %8,5eko jaitsierak eta inportazioen %9,1eko jaitsiera handiagoak. Hiruhileko artean esportazioak %0,8 jaitsi dira eta inportazioak %0,5.

BPGren jaitsierak, bai urte artekoak, bai hiruhileko artekoak behera eragin dio enplegu-mailari, **Lanpostuetan** neurturik. Enplegua urte artean %2,7 murriztu da (2008ko bigarren hiruhilekotik ez da izan urte arteko hazkunderik lanpostu-kopuruan). Hiruhileko artean jaitsiera %0,7 izan da.

Lanpostu-galera bai urte artean, bai hiruhileko artean gertatu da eta Lehen sektorean izan ezik sektore guztietan. Industrian areagotu egin da urte arteko jaitsiera-erritmoa, %4,7 2011ko hiruhileko beraren aldean. Hiruhileko artean, %1,2. Eraikuntzan enpleguaren jokaera Industrian izandakoaren tankerakoa da, baina aldakuntzak areagokoak dira. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean lanpostu-galera %12,3koa izan da. Bigarren hiruhilekoaren aldean lanpostu-galera %2,2 izan da. Zerbitzuetan urte arteko eta jarraiko hirugarren jaitsiera dago, %1,0. Hiruhileko artean jaitsiera baita ere, %0,4. 2011ko hiruhileko beraren aldean lanpostu-kopurua Lehen sektorean bakarrik hazi da, %1,5 urte artean; baina hiruhilekoen artean %1,0.

Urte artean, **Lurraldeetako BPGren** bilakaera antzekoa izan da. Araban eta Gipuzkoan %1,2ko jaitsiera; Bizkaian %1,4koa. Hiruhileko artean, irregularragoa izan da: %0,1eko jaitsiera Gipuzkoan, %0,4koa Bizkaian eta %0,7koa Araban.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua](#)